



**GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO SOZINETATEEN ZERGA
ERREFORMATZEKO PONENTZIA.
ELAREN ADIERAZPENA**

2012KO APIRILAREN 3A

I. SARRERA

ELAk hainbat urte darama Hego Euskal Herrian aplikatzen ari den zerga-politika salatzen, baita berau errotik aldatu beharra aldarrikatzen ere.

EAEko hiru Foru-Aldundiei 2011ko irailean bidali genien “ELAren proposamenak Foru-Aldundien gobernu ekintzarako” izeneko agirian esan genuenez, gizarte-ereduari dagokionez Hego Euskal Herriaren eta Europar Batasunaren arteko alde nagusia bertoko gizarte-babes eta zerga-presio maila askoz apalagoa da. Bi kontuok erabat lotuta daude.

Zehazki, EAEn:

- Gizarte-babesera bideratzen diren baliabide ekonomikoak BPGaren %19 dira, eta Europar Batasuneko batez besteko maila, %27a. Alde hau eurotan urtean 5.200 milioi ditugu.
- Zerga-presioa BPGaren %31 da, eta EBko batez bestekoa, berriz, %41. Hots, urtean 6.400 milioi euro.

Foru-Aldundiek eskumen garrantzitsuak dituzte gai hauekiko, besteak beste fiskalitatea (zergak biltzeko eta PFEZ, Sozietateen Zerga edota Ondarearen gaineko Zergan aplikatzekoa den araudia erabakitzeko ahalmena), baita gizarte-zerbitzuen inguruko funtsezko xehetasunak ere.

Zehazki Gipuzkoan 2009an zerga-presioa %30,37koa izan zen, EAEko batez besteko maila baino apalagoa eta Europakoa baino askoz txikiagoa.

II. PARTE-HARTZE SOZIALAREN GABEZIA

ELAk eskertu egin nahi du Gipuzkoako Batzar Nagusiek iritzia emateko eskaini diguten aukera. Sarri salatu izan dugu zerga-politikak defizit demokratiko larria duela. Gertatzen dena ezin baita bestela izendatu. Gai honetan ez dago formalki ezarrita sindikatuek edo gizarteak parte hartzeko inongo esparrurik, aurrez egindako inongo kontsulta biderik.

Paradoxa bat gertatzen da: euskal autogobernuaren eskumen nagusia, fiskalitatea, salbuetsita dago gizartearen parte-hartze bideetatik, dagokien erakundeek hala erabaki dutelako.

ELAk berriro exijitzen du egoera hau zuzen dadila; izan ere, ez baita badaezpadako zerbait, aukera politiko baten emaitza baizik: Ekonomia Ituna klase aberatsen eta kapitalaren mesedetan erabiltzea, biztanleriaren zati handienaren kaltetan. Zerga-sistema bidegabe eta intsolidario bat garatu da, eta hau nabarmen geratuko litzateke gizarteak informazioa eta parte hartzeko aukera balu.

Arestian aipatutako agirian, aurreko legealdietan bezalaxe, ELAk parte hartzeko mekanismo egituratuak eskatzen ditu. Oraindik ez dugu erantzun positiborik izan, ezta Gipuzkoako Aldundiaren aldetik ere.

III. SOZietateen ZERGAREN TESTuingURUA

Sozietateen gaineko Zergaren egoera eta bilakaerari buruz zenbait datu nabarmendu nahiko genuke.

a) Zerga-presio apala

Sozietateen gaineko Zergak 2009an eragiten zuen presioari erreparatuz gero (hori baita daukagun azken datua), Gipuzkoan BPGaren %1,5koa zen; EAEko batez besteko maila %1,9an zegoen, espainiar estatuan %2,3an, eta Europar Batasunean, %2,7an. Gainera, ondoko urteetan zerga-presioa areago gutxitu da. Hain zuzen, Gipuzkoako Aldundiak emandako datuen arabera, Sozietateen gaineko Zergaren presioa 2011n BPGaren %1,1 zen.

Aipatu beharrekoa da Sozietateen Zergak ez duela inongo zerikusirik lehiakortasunarekin. Zerga lortutako etekinen arabera ordaintzen da. Zerga jaisteak ez du eragiten errentagarri ez diren enpresak errentagarri izaterik, eta alderantziz, igotzeak ere ez du esan nahi enpresak lehiakortasuna galduko dutenik.

b) Iruzur maila altua

Soldatapeko ez diren errentetan iruzur fiskala berebizikoa da, eta hau azken urteotan ez da gutxitu. Datu ofizialen arabera, 2007an (krisi ekonomikorik nabari ez zen urtean alegia) Sozietateen Zergan egindako 10 aitorpenetatik ia 7tan enpresek galerak, 0 emaitza edota urtean 6.000 eurotik beherako etekinak zituztela adierazi zuten. Ez dago inongo ikerketa ofizialik ezkutuko ekonomiaz eta iruzur fiskalaz.

2009ko datu ofizialen arabera, Gipuzkoan egin ziren 23.540 aitorpenetatik %41,1ean (9.671 enpresa) kontabilitate-emaitza negatiboa aipatzen zen (galerak); %11n (2.594 enpresa), zero emaitza, eta %47,9an (11.275 enpresa), kontabilitate-emaitza positiboa. Emaitza hauetan kontabilitatetik kanpoko doikuntzak aplikatuta eta aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatuta, oinarri likidagarria lortzen da. Bada, egindako aitorpenen %64,6an (15.204 enpresa) oinarri likidagarria negatiboa edo nulua da. Oinarri likidagarri nulua aitortzen duten enpresak guztizkoen %25,4 dira (5.975 enpresa). Oinarri likidagarri positiboa, berriz, 8.336 enpresak eman zuten (%35,4ak).

Oinarri likidagarriaren arabera, Gipuzkoan 2009an egin ziren 23.540 aitorpenak honela sailka daitezke:

- 9.229 enpresak (%39,21ak), oinarri negatiboa.
- 5.975 enpresak (%25,39ak), oinarri nulua.
- 624ek (%11,15ak) 6.000 euroz azpiko oinarri likidagarria.
- 6.000 eta 60.000 euro bitarteko oinarria eman zuten aitorpenak 3.308 izan ziren (%14,06a).
- 1.559 aitorpenek (%6,63ak) 60.000 eta 300.000 euro bitarteko oinarri likidagarria eman zuten.
- 331 aitorpenek (%1,41ak), 300.000 eta 600.000 euro bitarteko oinarria.
- 514 aitorpenetan (hots, %2,19an) oinarri likidagarria 600.000 eurotik gorakoa izan zen.

SOZietateen ZERGAko AITORPENAK.
GIPUZKOA. 2009

OINARRI LIKIDAGARRIAREN TARTEEN ARABERA	
Negatiboak	9.229 (%39,21)
0-6.000 €	8.599 (%36,53)
6.000-60.000 €	3.308 (%14,06)
60.000-300.000 €	1.559 (%6,63)
300.000-600.000 €	331 (%1,41)
>600.000 €	514 (%2,19)

Iturria: Gipuzkoako Foru-Aldundia.

Hortaz, egindako aitortzenen %75,74ean oinarri likidagarria 6.000 eurotik beherakoa izan zen, eta %89,79an, 60.000 eurotik beherakoa. Datuok agerian uzten dute zerga honetan egiten den iruzur fiskala.


c) Tasa nominalen jaitsiera nabarmena

1996tik hona zerga-tasa orokorra %35etik %28ra jaitsi da (7 puntu). Egungo araudian zerga-tasa orokorra %28koa da, eta %24koa enpresa txikientzat (hots, jaitsiera 11 puntukoa izan da). Baina zenbait sozietatek %21, %20, %10 eta %1eko zerga ordaintzen dute. Gainera, %0 ordaintzen dute pentsio-funtsek eta eskatutako baldintzak betetzen dituzten BGAEek.

d) Benetako tasa nominala baino askoz txikiagoa da: kenketa eta hobariak

Gipuzkoako ogasunak benetan biltzen duen dirua zerga oinarriarekin alderatuz gero, ikusiko dugu batez besteko tasa erreala (zergen portzentajea enpresen etekinekiko) nominala baino askoz txikiagoa dela. Zehazki, 2010eko ekitaldiko batez besteko tasa erreala %14,8a izan zen. Hots, enpresek sozietateen zergen etekinaren %15etik behera ordaintzen dute. Hau oso kopuru eskasa da.

Bataz-besteko tipo errealaren bilakaera



Iturria: Gipuzkoako Foru-Aldundia

Batez besteko tasa nominalaren eta errealearen arteko aldea 2010ean 10,5 puntukoa izan zen. Ezartzen diren kenkari eta hobari anitzek eragiten dute ogasunak biltzen duen dirua teoriarik beharko lukeena baino askoz gutxiago izatea.

e) Azken urteetako zenbait aldaketa

Hau guztia azken urteotan Sozietateen Zergaren araudian egin diren erreformek egin dute posible; honakoak izan dira ondorioak:

- Zerga-tasa orokorra %35etik %28ra jaitsi da, eta enpresaren forma juridikoa edo tamaina medio txikiagoa ere izan daiteke, kooperatiba txikien %18raino.
- Zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko epea 15 urteraino luza daiteke.
- Ohiz kanpoko etekinen berrinbertsioak 10 urterako atzerapena dauka.
- Enpresa txikiek amortizatze askatasuna dute, eta ertainek, 1,5eko koefizientea.
- I+Gko kenkariak ez dauka gehienezko kuota mugarik.
- Berrikuntza teknologikoko kenkaria %30erainokoa da.
- Kenkari berriak ezarri dira.

Argi dago egindako erreformek ondorio bakarra izan dutela, zerga honekin biltzen den dirua gutxitzea eta kapitalak zerga gutxiago ordaintzea.

Azkenik, Europar Batasunari dagokionez, Sozietateen Zergak BPGarekiko duen pisua %2,7koa da, eta azken urteotako joera beheranzkoa izan da. Guztizko zergetan, Sozietateen zatia %7,8koa besterik da, eta datu hau ere jaisten ari da. Horrenbestez, Europa guztian zehar joera antzekoa da: gero eta diru gutxiago biltzen da Sozietateen Zergarekin. Horrek ez du esan nahi hori denik jarraitu beharreko bidea. Aitzitik, ELA europar eraikuntza prozesuaren joera neoliberal gero eta nabarmenagoaren aurkakoa da, ez ditu onartzen dumping fiskaleko mekanismoak, eta are gutxiago horiek duten ondorio sozial larriak.

IV. SOZietATEEN ZERGAko ARAUDIA ERREFORMATZEko PROPOSAMENARI BURUZko IRITZIA

Sozietateen Zerga erreformatzeko irizpideek diru-bilketa gehitzea ahalbidetu beharko lukete, eta horretarako azken urteotako erreformak indargabetu beharko lirakeke, hauek kapitalaren onerako izan baitira. Helburu nagusitzat zergaren tasa erreala ahalik gehien igotzea izan behar da.

Gipuzkoako Aldundiko Ogasun eta Finantza sailak Sozietateen zerga aztertu du, eta agiri bat egin du etorkizunean Zergaren araudia erreformatzeko hainbat ohar biltzen duelarik. Hau 2012an egitea espero du.

Edukietan, teoriarik dagokiona baino gutxiago ordaintzeko modua ematen duten pizgarri eta onura gehienak ezabatzeko borondatea agerikoa da. Hauek dira proposatzen diren neurri nagusiak:

- Amortizatze askatasuna aplikagarria den gutxieneko kopurua berrikustea.
- Sistema fiskaleko izakinak balioesteko modua aldatzea, kontabilitate sisteman erabiltzen dena egokitzeko.
- Finantza-gastuen gaineko kenkariak egiteko aukera mugatzea, enpresen gehiegizko zorpetzea saihesteko.
- Dirutan ordaintzen diren erosketa eta gastuak ez onartzeko aukera aintzat hartzea, horrela

kenkariak gutxitzen direlarik. Beste aukera bat ere badute kontutan: garraioko araudian jasota dauden frogagiririk gabeko gastuen gaineko kenkariak galaraztea.

- Inbertsioagatiko salbuespena berrikustea.
- Zerga-oinarri negatiboak eta aurreko ekitaldietako inbertsioagatik egindako kenkariak konpentsatzeko epealdia berrikustea.
- Berrikustea ea merkataritza-fondo inplizituarekin lotutako kenkaria mantenduko den.
- Esanguratsuak ez diren kenkariak ezabatzea.
- I+Gko eta berrikuntza teknologikorako jardueren gaineko kenkariak mugatzea.
- Mezenazkoaren erregimen berezian irizpide konkretuak finkatzea.
- Erregimen bereziak berrikustea: enpresak sustatzeko sozietateak, partzialki salbuetsitako erakundeak, FEAC operazioak, kooperatibak, etab.
- Sozietateen kanpaina aurreratu edo atzeratzeko aukera aintzat hartzea.
- Zergaren ordainketa zatikatua berreskuratzea.

ELAk uste du proposatutako erreformaren zentzua bat datorrela 2011ko iraileko gure agirian jasotako proposamen batzurekin, batik bat tasa erreala nominala baino askoz apalagoa izatea eragiten duten kenkariak gutxitzeari dagokionez. Alabaina, hartu beharreko erabakietan ez dago zehaztasun handirik. Gainera, Aldundiaren proposamenari dagokionez, ez gatoz bat zergaren tasa nominala gehitzeko aukera baztertzeko asmoarekin, 1996tik hona 7 puntu murriztu baita.

V. AZKEN IRUZKINAK ETA PROPOSAMENAK

- ELAren iritziz araudi fiskala errotik aldatu beharra dago (Sozietateen gaineko Zerga barne), eta iruzur fiskalari jazartzeko neurriak hartu behar dira. Aldaketa hauek bi arrazoiengatik dira beharrezkoak. Lehenik, zerga-sistema justuago eta solidarioagoa izan dadin. Bigarrenik, diru-bilketa gehitu beharra dagoelako Europarekiko gizarte-babesean eta zerga-presioan dugun defizita zuzentzeko.
- Deigarria iruditzen zaigu erakundeen paralisia (EAEn Foru-Aldundiak eta Batzar Nagusiak). Egungo zerga-sistemari eustea, edota aldaketa oso txikiak egitea (esaterako, 2011n PFEZarekin egin zirenak) esan nahi du, krisi egoera honetan eta diru-bilketa gutxitzen ari delarik, babestu egiten direla langabezia eta babes gabezia soziala areagotzen duten murrizte politikak. Hau erantzukizun politiko handia da. ELAk ez du onartzen erakundeek batetik esatea murrizteko politiken aurka daudela, eta bestetik, indarrean dagoen zerga-sistemearekin jarraitzea.
- Rajoyen gobernua EAEko erakundeak nabarmen uzten ari da. Hasteko, joan den abenduko PFEZaren erreformarekin, eta oraintsu berriro, martxoaren 30ean Sozietateen Zergan erabaki duen igoerarekin: bilduko den dirua %32 gehituko da (BPGaren %0,5). Ez da aski, baina bai Gipuzkoan, Araban, Bizkaian edo Nafarroan egiten ari dena baino gehiago. Hau harritzekoa eta ulertu ezinekoa iruditzen zaigu.

Horrenbestez, ELAk ezinbesteko ikusten du EAEn indarrean dagoen zerga-sistema bidegabekoa aldatzea. Horretarako, gogoratu nahi ditugu ELAk irailean Aldundiei bidalitako proposamen batzuk; hauek gauzatzeko borondate politikoa besterik ez da behar.

Iruzur fiskalaren jazarpena

Soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur izugarriaren aurkako borrokan honako erabakiak hartu behar dira, besteak beste:

- Soldata ez diren errenta guztiak ikuskatzea (PFEZ, Sozietateen Zerga eta BEZari dagokionez)

iruzurra iraungi baino lehenago (hots, orain urtero kolektibo honen %1 baino gutxiago ikuskatzen bada, %20raino gehitu behar da).

- Giza-baliabideak zeharo gehitu behar dira, ikuskapen kopurua handiagoa izan dadin.
- Zerga gutxiago ordaintzeko modua ematen duten lege-mekanismoak sakon aztertzea eta ezabatzea (zuzeneko zerga guztietan).
- Iruzur fiskalari buruzko aldizkako azterketak egitea.

Sozietateen Zerga

ELAk honakoak proposatzen ditu:

- %35eko tasa nominal bakarra ezartzea.
- Kenkari fiskalak erabat murriztea, izan ere, ordaintzen den tasa erreala tasa nominalaren erdia besterik ez baita.
- Oporraldi fiskala zertan den eta zein eragin izan duen argitzea iritzi publikoari (zenbaterainoko maila izan zuen, zenbat diru berreskuratu den eta zenbat ez, isunekiko estrategia...). Zergan berariazko errekaratu bat ordainarazi behar da, ezar daitezkeen isunak kitzatzeko.

Parte-hartze sozialerako mekanismoak

- Zerga-politika definitzeko partaidetzazko prozesu bat egin behar da, eta horren baitan beharrezkoak dira sindikatuak parte hartzeko mekanismo instituzionalizatuak.
- Halaber, herritarrei gai honekiko kontsulta ere erreforma fiskalari buruzko erabili beharreko tresna izan behar da.

Eusko Legebiltzarrak zerga-gaietan legeak egitea

ELAren ustez, egungo zerga-politikako erabakitzeak esparrua aldatu beharra dago. Foru-erakundeek Ekonomia-Iltuna eta Autonomia-Estatutua aipatzen dituzte gai honetan duten eskumena defenditzeko, baina ez da harritzekoa ere Zerga-Koordinaziorako Organoan behar den lankidetzak aitzakiatzat hartzea aplikatzen ari diren politiketan funtsezko aldaketa ekarriko duten proposamenak baztertzen dituztenean.

Gure ustez, ZKO (Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek erdibana osatua) erakunde guztiz opakua da, eta sistemaz ebasten dio gizarteari beroni zor zaion informazioa eta eztabaida. Alde baten betoak praktikan ezinezkoa egiten du fiskalitatea gizarte-justiziara bideratzeko modua. Gaur arte ZKO patronalaren interesen aldeko tresna oso egokia gertatu da. Sindikatuen parte-hartzea eragotzi egin dute, baina Confederaskekin, aldiz, harremana etengabekoa izan da. Bizkaiko Ogasun diputatuak oporraldi fiskalari buruz esan zuen moduan, "patronalak eskatutakoa egin dugu".

ELAren aburuz zerga-araudiari buruzko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartu behar dira, eta ez Batzar Nagusietan. Noski, Legebiltzar horretan gure herriko pentsamolde politiko guztiek izan behar dute lekua. Gaur osasungintza, hezkuntza edo etxebizitza-politika lurralde bakoitzean hartzen diren erabakien baitan garatzen dira, eta honek ez du zentzurik.

Azkenik, ELAk argi utzi nahi du duela urte asko hasitako ibilbidean beti egin izan duen legez aurrerantzean ere arlo fiskalean bere azterketa eta proposamenak egingo dituela, gai honekiko sentsibilitatea langile-klasean eta gizarte guztian hedatze aldera, eta mobilizazioa bultzatuko duela, dagokien erakundeek zerga-sistema justu eta solidario baten alde egin dezaten, Hego Euskal Herrian ditugun defizit sozial handiak konpontzeko behar diren diru-sarrerak nahikoak iristeko moduan izan daitezkeen.

Halere, orain arte erreforma fiskalak Zerga-Koordinaziorako Organoan proposatu eta erabaki izan dira (erdibana Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek osatzen duten erakundean alegia); honek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak zer esana baduela, eta izan duela, zerga-politikari dagokionez.

Gainera, bai Estatutuan, zein Lurralde Historikoen Legean eta Ekonomia-Itunean ere, jasota dago Eusko Legebiltzarrak arlo fiskaleko legeak egiteko aukera. Lege guztiotan aipatzen da Lurralde Historikoek aintzat hartu behar dituztela Legebiltzarrak Autonomia-Erkidegoaren baitan zergen koordinazio, armonizazio eta lankidetzarako ezartzen dituen arauak. Maiatzaren 30eko 3/89 Legean printzipio hau aplikatzeko ez da inongo mugarik aipatzen; beraz, Legebiltzarrak arlo honetan badu eskumena. Lege maila duten arauak egiteko ahalmena Legebiltzarrari bakarrik dagokio, Batzar Nagusiek Foru-Arauak onartzen baitituzte.

Orain arte ez da bitarteko hau erabiltzeko borondate politikorik izan, eta ELAk oso tresna egokitzat jotzen du.